

Funtsezko baliabideak

Instalazioaz gain, hauek guztiak dira gure produktuen kalitatea eta bezeroarentzako esperientzia bermatzeko ezinbesteko elementuak.

Osagaien hornitzaileak: irina, azukrea, txokolatea, gurina, arrautzak eta bestelako kalitate handiko lehengaiak ematen dituztenak.

Sukaldeko ekipamenduaren hornitzaileak: labeak, tresneria eta sukaldeko instalazio egokiak eskaintzen dituzten enpresak.

Dekoraziorako material hornitzaileak: pastelak apaintzeko material bereziak (koloratzaileak, moldeak, apaingarriak...).

Ontziratze-hornitzaileak: kaxak, paperak eta packaging erakargarria eskaintzen dutenak.

Komunikazio eta sare sozialetako bazkideak: sare sozialak kudeatzeko edo diseinu grafikorako laguntza ematen duten pertsonak edo plataformak.

Guretzat garrantzitsuak dira negozio-eredua optimizatzen laguntzen dutelako, hornitzaile fidagarriek ekoizpena errazten baitute eta denbora zein kostuak hobeto kudeatzea ahalbidetzen dutelako. Era berean, arriskuak murrizten dituzte, osagaien eta materialaren hornidura egonkorra izateak etenak saihesten dituelako. Gainera, beharrezko baliabideak eskuratzeko aukera ematen digute, kalitatezko osagaiak, tresneria egokia eta dekoraziorako material bereziak lortuz. Azkenik, bezeroaren esperientzia hobetzen dute, produktuaren kalitatea, aurkezpena eta komunikazio bisuala indartzen direlako.